


# ziburu bizi 2020

*Hats berri bat Zibururi!* *Un nouveau souffle pour Ciboure !*

**ÉLECTIONS MUNICIPALES DES 15 ET 20 MARS 2020 / 2020KO MARTXOAREN 15 ETA 22KO HERRIKO BOZAK**

*Le projet que nous souhaitons porter pour Ciboure se veut ambitieux mais surtout réaliste et réalisable !*
*Nous l'avons co-construit avec les cibouriennes et les cibouriens au cours de différents ateliers qui se sont tenus tout au long de l'année 2019.*
*Ce travail, animé par des spécialistes et/ou des techniciens, a fait l'objet de concertations avec les acteurs économiques, sociaux, culturels et associatifs de notre commune.*

*Zibururen alde aurkeztu nahi dugun proiektua gora heldu nahia da, baina batez ere errealista eta gauzagarria!*
*Proiektua elkarrekin eraiki dugu 2019an proposatutako gaikako lantegietan parte hartu duten ziburutarrekin elkarlanean.*
*Lantegi horiek adituek edota teknikariek eman dituzte, eta gure herriko eragile ekonomiko, sozial, kulturalak eta elkarteak kontuan harturik egin dira.*



## Index
## Aurkibidea


- GESTION MUNICIPALE / HERRIAREN KUDEAKETA — 4-5
- LOGEMENT ET URBANISME / ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA — 6-7
- DÉVELOPPEMENT DURABLE / GARAPEN IRAUNKORRA — 8-9
- ENFANCE - JEUNESSE / HAURTZAROA-GAZTERIA — 10-11
- ACTION SOCIALE / GIZARTE EKINTZA — 12-13
- CULTURE ET VIE ASSOCIATIVE / KULTURA ETA ELKARTEAK — 14-15
- DÉVELOPPEMENT ÉCONOMIQUE ET TOURISME / GARAPEN EKONOMIKOA ETA TURISMOA — 16-17
- PROXIMITÉ ET VIE DES QUARTIERS / AUZOETAKO BIZIA — 18-19
- POLITIQUE LINGUISTIQUE / HIZKUNTZA POLITIKA — 20-21
- FINANCES - FISCALITÉ / FINANTZAK ETA FISKALITATEA — 22-23
- INTERCOMMUNALITÉ / INTERKOMUNITALITATEA — 24-25
- NOTRE LISTE / GURE ZERRENDA — 26-27
- NOS SOUTIENS ! / GURE SUSTENGUAK! — 28

### √ Redonner vie à Ciboure

- En définissant une politique raisonnée de l'urbanisme et de l'habitat qui s'adressera prioritairement aux besoins des cibouriens et de leurs enfants.
- En remettant le secteur portuaire au centre du développement économique.
- En déclinant une politique municipale volontariste en faveur du développement de la culture et de la langue basque.

### √ Retrouver une gestion municipale apaisée et concertée

- En redonnant la parole aux cibouriennes et cibouriens, en étant attentifs et soucieux de leurs besoins et de leurs problématiques.
- En favorisant l'écoute et le respect entre élus, et en ne refusant pas le débat.
- En mettant en place une véritable concertation avec nos communes voisines afin de mutualiser au mieux nos infrastructures et nos politiques publiques.

### √ Mettre la protection de l'environnement et la préservation de la qualité de vie au cœur de notre projet municipal

- En menant des actions concrètes en faveur de la préservation de la biodiversité et du littoral.
- En accompagnant les initiatives qui visent à renforcer le développement de l'économie de proximité.
- En sensibilisant l'ensemble des habitants aux enjeux liés au changement climatique.

### √ Ziburu berpiztu

- Hirigintzarako eta etxebizitzarako zentzuzko politika plantan ezarriz, lehentasunez herritarren eta haien seme-alaben beharrei erantzunen diena.
- Portu-eremua garapen ekonomikoaren erdigunera itzuliz.
- Euskararen eta kulturaren garapenaren aldeko herri-politika deliberatua agertuz.

### √ Herri-kudeaketa baketsua eta hitzartua berreskuratu

- Hitza ziburutarrei itzuliz, eta beren beharrak kontuan hartuz eta arazoez jabetuz.
- Hautetsien arteko entzutea eta errespetua bultzatuz, eztabaidari uko egin gabe.
- Kultura eta hizkuntza garatzearen aldeko politika ausarta aldarrikatuz.
- Gure auzo herriekin zinezko hitzartzea ezarriz, gure azpiegiturak eta gure politika publikoak ahal bezain ongi mutualizatzeko gisan.

### √ Ingurumenaren eta bizi-kalitatea begiratzea gure proiektuaren muinean ezarri

- Biodibertsitatearen eta itsasertzaren begiratzearen aldeko ekintza zehatzak eginez.
- Hurbileko ekonomiaren garapena indartzeko ekimenak lagunduz.
- Klima-aldaketarekin loturiko arazoei buruz biztanleria osoa sentsibilizatuz.

# Gestion municipale

*« Pour une gestion concertée et responsable »*

**L'image de la vie politique cibourienne a été ces dernières années fortement dégradée.**

*Il conviendra de la redorer tant au niveau municipal qu'au niveau communautaire: en favorisant l'implication, l'écoute et le respect entre élus, et en ne refusant pas le débat avec les ciboudiens.*

*Les futurs élus de notre liste seront signataires d'une charte éthique qui rappellera les grands principes déontologiques à respecter dans le cadre de l'exercice de leur mandat (consultable sur www.ziburubizi2020.com).*

*Il conviendra également de* **mettre en place une véritable concertation avec nos communes voisines** *afin de mutualiser au mieux nos infrastructures, équipements et nos politiques publiques.*

## NOS PROPOSITIONS :

√ Le Conseil municipal est l'assemblée élue chargée de « régler, par ses délibérations, les affaires de la commune ». Pour autant, nous réunirons régulièrement les commissions municipales afin de **débattre en amont des délibérations votées en conseil municipal**.

√ **Le Maire recevra à intervalles réguliers les responsables de l'opposition** afin de mieux les informer et les associer aux dossiers en cours.

√ Nous **réunirons régulièrement** la commission d'appel d'offres, ce qui sera un gage de transparence dans l'attribution des marchés publics.

√ Nous organiserons **une fois par an une réunion publique** qui aura pour objectif de présenter l'état des projets communaux et communautaires et de dresser le bilan de l'action municipale.

√ Nous mettrons à disposition des cibouriens **une application (accessible via internet)** qui permettra de signaler de manière instantanée (sans se déplacer à la mairie) les problèmes et difficultés rencontrés dans une rue, un quartier afin d'en améliorer le traitement et le suivi.

√ Nous mènerons une gestion municipale qui s'attachera à proposer une **vision globale de bassin de vie pour les projets structurants d'envergure**. Soucieux de l'utilisation de l'argent public, il n'est plus possible de gérer notre ville sans conduire une réflexion préalable avec les communes avoisinantes.





## GURE PROPOSAMENAK :

✓ Herriko Kontseilua “bere deliberoen bitartez herriaren kontu eta arazoak antolatu behar dituen” batzarra da. Hala ere, **batzorde munizipalak erregularki bilduko ditugu** kontseilua baino lehenago bozkatuko diren deliberoez eztabaidatzeko.

✓ **Oposizioko ordezkariak tarte erregularretan bilduko ditu auzapezak** hobeki informatuak izan daitezen eta dosierren jarraipen hurbila ukan dezaten.

✓ Eskaintza publikoen deialdi batzordeetan parte hartuko dute oposizioko kideek, horrela merkatu publikoen esleipena gardentasunez bermatua izanen baita.

✓ Urtean behin **biltzar publiko bat antolatuko dugu** herriko etxearen eta elkargoaren egitasmoen berri emateko, eta herriko etxearen lanaren bilana egiteko.

✓ **Aplikazio bat ezarriko dugu ziburutarren** zerbitzuko (internetez edo mugikorrean lortzen ahalko dena), karrika nahiz auzoko zailtasun edo arazo baten berri kuxian eta berehala, herriko etxera joan gabe, ematea ahalbidetuko duena, bai eta ere horren tratamendua jarraitzea.

✓ Neurri handiko proiektu egituratzaileentzat, **eskualde mailako ikuspegi orokorragoa bultzatuko duen kudeaketa munizipala eramanen dugu**. Diru publikoa nola erabilia den kezkaturik, ezin dugu gehiago Ziburu kudeatu auzo herriekin lehenago gogoetarik eraman gabe.

# Herriaren kudeaketa



*« Ziburu adospenez eta arduraz kudeatu »*

*Ziburuko* **bizi politikoaren irudia azkarki apaldua eta andeatua izan da azken urteetan**. *Bai herriko etxean, eta bai elkargoan gauzak hobetu beharko ditugu, azalean bezala funtsean : hautetsien parte hartzea eta beren arteko errespetua nola elkar aditzea sustatuz, ziburutarrekin eztabaidatzeari uko egin gabe.*
***Gure zerrendako hautagaiek xarta etiko bat sinatuko dute, beren kargualdian errespetatu beharko dituzten printzipio deontologikoak gogoan atxikitzeko (webgunean eskuragarri: www.ziburubizi2020.com).***

**Auzo herriekin egiazko elkar lana xutik eman beharko da**, *azpiegiturak eta ekipamenduak bai eta ere politika publikoak ahal bezain ongi elkarrekin hitzartu eta baltsan emaiteko.*

# Logement et urbanisme

*« Pour un développement urbain maîtrisé et des logements accessibles pour les cibouriens »*

*Ciboure compte plus de 6.285 logements pour 6.463 habitants, soit pratiquement un logement par habitant ;* ***45% étant des résidences secondaires****.*

*L'augmentation du nombre de constructions ces dernières années n'a pas pour autant résolu le problème du logement : lors des derniers mandats, alors que la rare ressource foncière dont nous disposons a été consommée à outrance pour réaliser des constructions,* ***Ciboure a enregistré une baisse significative de sa population****.*

**L'action publique est désormais totalement bridée par le coût du foncier.**
*En poursuivant la politique actuelle, il faudrait près de 30 ans pour parvenir au niveau de 25% de logements sociaux imposés par la Loi SRU auxquels 80% des cibouriens sont éligibles.*



## NOS PROPOSITIONS :

✓ Agir en faveur d'**une gestion raisonnée de l'urbanisme et de l'habitat** en privilégiant la concertation dans l'élaboration des futurs projets immobiliers – tout en limitant leur nombre - et en développant l'offre de logements sociaux qui s'adressera prioritairement aux cibouriens.

✓ **Garantir de manière durable la vocation sociale des logements** en accession sociale à travers la mise en place de logements proposés dans le cadre d'un « Bail Réel Solidaire » ; dispositif qui permet d'encadrer la revente de ce type de logements.

✓ Maîtriser l'étalement urbain afin de **préserver les espaces agricoles, forestiers et naturels**.

✓ **Plan Local d'Urbanisme:** nous analyserons en tout premier lieu les **possibilités de modification du PLU en cours d'élaboration afin d'obtenir un document en cohérence avec notre vision de Ciboure**. Pour autant, si ces possibilités s'avéraient trop restrictives, nous serions contraints de le reprendre à zéro.

✓ **ZAD de L'Encan:** le projet que nous porterons visera à répondre aux **besoins de logements, et à maintenir une zone d'activité économique**, il se fera en lien étroit avec les habitants et les acteurs économiques de la zone.



# *Bizilekuak eta hirigintza*

*« Zibururen hiri hedapena mugatu eta etxebizitzak lehentasunez ziburutarrentzat izatearen alde »*

*Etxe bizitzen arloan beste politika bat posible da!* **Ziburuk 6.285 bizitegi dauzka 6.647 biztanlerentzat***: kasik bat pertsona bakoitz; hauetarik %45 bigarren etxe bizitzak dira.*

*Azken urte hauetako etxe bizitzen eraikitzeen emendatzeak ez du bizitegien arazoa batere konpondu:* **Ziburuk bere biztanleriaren apaltze adierazgarria pairatu du azken mandatuetan***, libre ziren funts bakanak irentsiak izan direlarik eraikuntza berrien egiteko.*

*Lurraren prezioak arrunt mugatzen du orain ekimen publikoa. Gaurko erritmoa jarraikiz, 30 urte baino gehiago beharko litzateke SRU legeak inposatu etxe bizitzen %25a soziala izatera heltzeko, ziburutarren %80k betetzen dituelarik holakoetan bizitzeko baldintzak.*





## GURE PROPOSAMENAK :

✓ **Hirigintzaren eta bizilekuen zentzuzko kudeaketaren alde aritzea**, gerorako higiezinen proiektuak egiteko hitzartzea lehenetsiz – aldi berean, proiektu horien kopurua mugatuz – eta lehentasunez herritarrei zuzenduko zaien etxebizitza sozialen eskaintza zabalduz.

✓ **Jabegora heltzeko etxebizitzen bokazio soziala molde iraunkorrean bermatzea**, Bail Réel Solidaire delakoari loturiko etxebizitzak sortuz; baliabide horrek jabegora heltzeko etxebizitza sozialen birsalmenta begiratuko du.

✓ Hiri-hedapena kontrolatzea, **laborantza, oihan eta natura-espazioak babesteko.**

✓ **Tokiko Hiri Plana**: lehenik eta behin, prestatzen ari den **THP aldaketa posibilitateak aztertuko ditugu** gure ikuspegiarekin bat datorren dokumentu bat lortzeko. Hala ere, aukera horiek murritz egiak balira, berritz hutsetik hasiko genuke.

✓ **Enkateko ZADa**: aurrera eramango dugun proiektuak etxebizitza beharrak asetzea izango du helburu, eta jarduera ekonomikoko zona mantenduko du, proiektu hau **biztanle eta zonaldeko eragile ekonomikoekin** lotura estuan egingo da.

# Développement durable



*« Pour une ville en transition »*

*Le Parlement Européen vient de décréter* ***l'urgence climatique*** *et environnementale.*

*L'engagement pour limiter le réchauffement de la planète à 1,5°C et ainsi éviter une perte massive de biodiversité doit se faire à tous les niveaux de la vie publique;* ***en tout premier lieu au niveau communal et communautaire****.*

*Sensibles à l'avenir de notre territoire et attachés à ce qu'il reste habitable et respirable pour les jeunes générations, nous nous engageons à porter* ***une politique volontariste en matière d'environnement et de développement durable****.*





## NOS PROPOSITIONS :

√ **Réaliser un audit énergétique des bâtiments publics** qui permettra d'avoir connaissance des bâtiments énergivores et d'envisager les travaux à mettre en œuvre pour améliorer leur performance énergétique.

√ **Développer la production des énergies renouvelables** sur notre commune en accompagnant les projets d'initiatives citoyennes et locales pour la production d'électricité verte.

√ **Développer les modes de déplacements doux**; sécuriser les circulations piétonnes et cyclables sur le Pont Charles De Gaulle en lien avec le Département des Pyrénées-Atlantiques et la commune de Saint Jean de Luz.

√ **Valoriser et préserver les espaces naturels** des Barthes de la Nivelle, de la corniche de Socoa et de la Montagne de Ciboure.

√ **Privilégier les espaces verts** et favoriser l'agriculture urbaine.

√ Accompagner toute initiative visant à développer l'économie de proximité et à **permettre l'accès à des produits sains, durables et locaux** : AMAP, épicerie participative, monnaie locale.

√ Expérimenter la mise en place d'un **composteur collectif** qui permettra aux cibouriens de déposer leurs déchets ménagers organiques.

√ **Installer des « bacs à marée »** sur nos plages afin d'encourager les promeneurs et utilisateurs à participer à la préservation de notre littoral.

# Garapen iraunkorra

*« Ziburu trantsizio bidean»*

*Europar Legebiltzarrak* ***klima eta ingurumen larrialdia*** *aldarrikatu berri du.*

*Bioaniztasunean galtze izugarriak saihesteko planetaren beroketa 1,5°C-ra mugatzeko engaiamendua bizitza publikoaren maila guzietan bete behar da, lehenbizi herriko etxe eta elkargoaren mailan.*

*Gure lurraldearen geroari atxikiak gara eta ondoko belaunaldiak bertan sanoki bizitzeko ahala izan dezaten nahi dugu, horregatik* ***ingurumena zainduko eta garapen iraunkorra sustatuko duen politika aktiboa*** *eramanen dugu.*





## GURE PROPOSAMENAK :

- √ Eraikin publikoen **ikuskatze energetikoa** egitea, horri esker soberazko energia xahutzen dutenak ezagutu eta horietan behar diren obrak erabakitzea beren emaitzak hobetzeko.
- √ Ziburun **energia berriztagarrien ekoizpena garatzea**, energia berdea sortzea xede duten herriko proiektu eta herri iniziatibak lagunduz.
- √ **Garraiobide eztiak garatzea,** Ziburu eta Donibane Lohizune arteko zubian oinezkoen eta txirrindularien zirkulazioa seguru bihurtzea Donibaneko herria eta Departamenduarekin elkar lanean.
- √ **Eremu naturalak babestea eta zaintzea**, Urdazuri hegiak, Zokoako ezpondak eta Ziburuko mendia.
- √ **Berdeguneak lehenestea** eta hiri barneko laborantza bultzatzea.
- √ **Hurbileko ekonomia** eta zirkuitu laburrak sustatu nahi dituzten ekimenak laguntzea, denei tokiko ekoizpen sanoak erosteko manera izan dezaten : AMAP, janari denda partizipatiboa, tokiko moneta.
- √ **Konposta ontzi kolektibo** baten esperientzia egitea ziburutarrek beren hondarkin organikoak bertan utzi ahal izateko.
- √ Gure hondartzetan **“marea ontziak” ezartzea**, hauetan ibiltzen direnek itsas hegiaren babestean parte hartzera akuilatzeko.

# Enfance et jeunesse



*« Pour une ville à l'écoute des jeunes générations »*

*L'éducation et le bien vivre ensemble sont l'affaire de tous et concernent en premier lieu les acteurs du monde éducatif.*

*Aussi* **les politiques publiques menées en matière d'éducation viseront à améliorer les conditions de vie,** *d'accueil et d'enseignement de nos enfants, en respectant le principe d'égalité des chances.*

*De même, nous construirons une politique de la jeunesse (11 - 25 ans) afin de renforcer les capacités des jeunes à être acteurs de leur parcours vers l'autonomie.*





## NOS PROPOSITIONS :

√ Pérenniser l'offre d'accueil collectif existante, la développer en langue basque et **favoriser la prise en charge des enfants en situation de handicap** en envisageant le recrutement d'une assistante de vie scolaire.

√ Proposer une action éducative en complément et en concertation avec l'école, telles que des actions de sensibilisation à la **lutte contre le gaspillage alimentaire** et à la protection de l'environnement.

√ Parce que l'ensemble des écoles participe au service public de l'éducation, nous veillerons au maintien du forfait communal pour le fonctionnement des écoles sous contrat avec l'Etat (**école Saint Michel et Ikastola Kaskarotenea**) dans le strict respect de l'équité avec les écoles publiques et des lois en vigueur.

√ Trouver une **solution pérenne** pour l'ikastola Kaskarotenea afin d'améliorer les conditions d'accueil et d'apprentissage des enfants.

√ Valoriser et promouvoir les formations et actions proposées par le **Lycée Maritime**.

√ Soutenir **l'exercice de la parentalité**: proposer des conférences, rencontres pour répondre à certaines préoccupations des parents dans la relation avec leur enfant.

√ Inciter les associations sportives à développer des **activités sportives accessibles à tous** (handisport, section féminine).

√ Mise en place de tickets sport et culture pour permettre aux enfants et aux jeunes de **découvrir les activités sportives et culturelles de Ciboure** à des prix abordables.

√ Création d'une **bourse au permis de conduire** pour les jeunes ayant besoin d'un soutien financier et ainsi faciliter leur mobilité et insertion professionnelle.

# Haurtzaroa eta gazteria

*"Belaunaldi gazteak entzuten dituen Ziburu baten alde"*

*Hezkuntza eta bizikidetza guztien afera dira, eta, lehen-lehenik hezkuntza munduko eragileei dagokie.*

*Beraz, hezkuntzaren arloko politika publikoen helburua izanen da gure herriko haurrei begirunerik handiena eskaintzea eta haien bizi-baldintzak, harrera eta irakaskuntza-baldintzak hobetzea, aukera-berdintasunaren printzipioa errespetatuz.*

*Gisa berean,* **gazteriaren politika eraikiko dugu 11 eta 25 urte bitarteko gazteekin eta gazteentzat, proiektuetako aktore bilaka daitezen** *eta tokiko bizi demokratikoan parte har dezaten.*





## GURE PROPOSAMENAK :

√ Gaurko **harrera-egitura eskaintza atxikitzea**, euskaraz garatzea eta desgaitasun bat duten ahalmen urriko haurren harrera sustatzea inklusiorako laguntzaile bat enplegatuz.

√ Heziketa ekimen osagarriak proposatzea, eskolekin elkar lanean, **elikagaien xahutzearen aurka**ko eta ingurumenaren babesaren aldeko borrokari buruzko sentsibilizazio-ekintzak adibidez.

√ Eskola guztiek Hezkuntzaren zerbitzu publikoan parte hartzen dutenez, **eskolen funtzionamendurako diru-laguntza** segurtatuko dugu Estatuarekin kontratupean diren eskolentzat (**Saint Michel Eskola** eta **Kaskarotenea Ikastola**), eskola publikoekiko eta indarrean dauden legeekiko berdintasuna errespetatuz.

√ **Kaskarotenea**rentzat aterabide iraunkor bat atzematea, haurren harrera eta ikasketa baldintzak hobetzeko.

√ **Itsas Lizeoa**k eskaintzen dituen formazio eta ikasbideak sustatzea eta ezagutaraztea.

√ **Gurasogintza egunerokoan** sustengatzea: hitzaldiak, eztabaidak proposatzea haurrekiko harremanetan gurasoek dituzten kezka eta galderei erantzuteko.

√ Kirol-elkarteak bultzatzea **guztientzat irisgarriak diren kirol-jarduerak** gara ditzaten (desgaitasuna dutenentzat kirol egokitua, emakumezkoen saila).

√ **Kirol eta kultura tiketak plantan ezartzea**, haurrek eta gazteek Ziburuko kirol eta kultura aktibitateak arrazoizko prezioetan ezagutzeko parada ukan dezaten.

√ **Gida baimenerako diru laguntza** bat sortzea horren beharra duten gazteentzat, beren mugikortasuna hobetuz lana aiseago atzeman dezaten.

# Action sociale

*« Pour une ville intergénérationnelle et solidaire »*

**Notre commune sera engagée activement dans la lutte contre toutes les formes d'exclusions et de discriminations.**

*Nous veillerons à construire une action sociale de proximité en assurant une écoute permanente et bienveillante des publics (personnes âgées, personnes dépendantes, personnes à mobilité réduite, enfants et personnes en difficulté, chômeurs, travailleurs précaires, femmes victimes de violences), en les accompagnant dans leur quotidien mais également en les orientant vers les structures adaptées.*

*Nous mènerons l'ensemble de nos actions en partenariat avec les associations, les professionnels et les collectivités locales qui œuvrent dans le domaine de la solidarité et de l'inclusion sociale.*






## NOS PROPOSITIONS :

√ **Mettre en place des cafés des aidants***. L'objectif est d'offrir un lieu dédié pour échanger et rencontrer d'autres aidants dans un cadre convivial ; ces temps d'échanges étant animés par des professionnels (travailleur social, psychologue…).

** Un aidant est une personne qui intervient de façon essentielle auprès de personnes en perte d'autonomie. L'importance de leur rôle est de plus en plus reconnue ainsi que les difficultés qu'ils peuvent rencontrer.*

√ **Favoriser l'inclusion numérique** en proposant un service d'accompagnement aux démarches administratives dématérialisées.

√ **Lutter contre l'isolement des seniors** en encourageant la cohabitation intergénérationnelle sur la base d'un échange solidaire et non monétaire.

√ **Renforcer l'offre de services** proposée aux personnes âgées.

√ Renforcer l'accompagnement des bénéficiaires de **l'aide alimentaire en lien avec les associations qui viennent en aide aux plus démunis.**

√ **Envisager la rénovation énergétique** du parc de logements sociaux actuels afin d'apporter une réponse à l'enjeu sociétal que représente la hausse du prix de l'énergie.

# Gizarte ekintza

*"Belaunaldien arteko elkartasuna garatzen duen Ziburu baten alde"*

**Gure herria azkarki engaiatuko da bazterkeria eta diskriminazio mota guztien aurkako borrokan.**

*Hurbileko gizarte-neurriak hartuko dira, jendea (adinekoak, beste meneko diren pertsonak, mugikortasun urrikoak, zailtasunak dituzten haur eta helduak, langabetuak, langile prekarioak, indarkeriaren biktima diren emakumeak) etengabe eta gogo onez entzuten dela segurtatuz, eguneroko bizian lagunduz, baita egitura egokietara bideratuz ere.*

*Elkartasunaren eta gizarteratzearen arloan lan egiten duten tokiko elkarteekin, profesionalekin eta kolektibitateekin elkarlanean gauzatuko ditugu gure ekintza guztiak.*




## GURE PROPOSAMENAK :

√ **Zaintzaileentzat topaguneak prestatzea***. Helburua da lagunarteko ingurune batean beste zaintzaile batzuk ezagutu eta haiekin esperientziak trukatzeko leku bat eskaintzea; truke-denbora horiek profesionalek (gizarte-langilea, psikologoa …) animatzen dituztelarik.

** Zaintzailea autonomia galtzen duten pertsonengan funtsezko lana eramanez eragiten duen pertsona da. Bere rola zein den garrantzitsua eta zaila gero eta ezagunagoa da.*

√ **Gizarteratze digitala bultzatzea**, administrazio-desmartxa desmaterializatuei laguntza-zerbitzua eskainiz.

√ **Adinekoen isolamenduaren aurka borrokatzea**, elkartasunezko eta sosa tarteko ez duen elkartrukea oinarri duen belaunaldien arteko bizikidetza sustatuz.

√ Adineko jendearentzat **zerbitzu eskaintza** zabaltzea.

√ **Elikadura laguntza hartzen dutenak sostengatzea**, egoera ahulenean daudenei laguntza ematen dieten elkarteekin lotura eginez.

√ Egungo etxebizitza sozialen parkearen **berrikuntza energetikoa pentsatzea**, energiaren prezio emendatzeak eragiten duen erronka sozialari erantzuteko.

# Culture et vie associative

*« Pour une cité vivante et populaire »*



**La vie associative est fondamentale pour la vie locale**, *notamment grâce à l'engagement de nombreux bénévoles.*

*Qu'elles soient culturelles, sportives, environnementales, sociales... nos associations, génératrices de lien social, ne cessent de se développer et nécessitent donc un accompagnement constant.*

**La culture occupera une place majeure dans notre action municipale :**
*l'accès à la création artistique étant un facteur d'émancipation pour tous et la culture permettant de comprendre l'histoire d'un territoire, sa diversité et ses enjeux.*

*"l'accès à la création artistique étant un facteur d'émancipation pour tous"*

## NOS PROPOSITIONS :

- √ **Soutenir la vie associative locale**, véritable lien social et reflet de dynamisme des habitants.
- √ **Développer les actions de médiation artistique et culturelle** auprès des scolaires.
- √ **Renforcer l'action de la médiathèque** en créant des animations hors les murs.
- √ Proposer une **offre culturelle riche accessible et tout public** (musique, danse, arts de la rue, théâtre…) en collaborant avec d'autres communes sur la programmation notamment.
- √ Promouvoir une **culture basque vivante** en s'inscrivant notamment dans les temps forts culturels du territoire.
- √ Mettre en place un **jumelage avec une ville** dont l'activité économique, l'identité et la diversité culturelle nous permettront de développer des projets communs.
- √ Préserver et valoriser le patrimoine **architectural** de Ciboure.
- √ Repenser le **projet du Fort de Socoa** en concertation avec les acteurs locaux en privilégiant l'environnement et l'histoire maritime de Ciboure, et en envisageant sa réouverture au public.

# Kultura eta elkarte bizitza

*«Ziburu bizi eta herrikoi baten alde»*

**Elkarte bizitza baitezpadakoa zaio herriko biziari.** *Gure elkarteek, bolondres anitzen engaiamenduari esker, herritarren arteko loturak sortzen dituzte, gelditu gabe garatzen ari dira eta laguntza iraunkorra merezi dute zeinahi izan dadin beren aritzeko eremua: kultur, kirol, ingurumen edota sozial arloa.*

**Kulturak toki nagusia beteko du hartuko ditugun neurrietan:** *sorkuntza artistikora heltzea nork bere burua libreki eraikitzeko bidea baita eta kulturak lurralde baten historia, aniztasuna eta desfioak ulertzen laguntzen baitu.*

## GURE PROPOSAMENAK :

- √ **Herriko elkarte bizitza sustengatzea**, herritarren artean baitezpadako lotura sortzen duelako eta ziburutarren bizitasunaren miraila baita.
- √ **Bitartekaritza lana eramatea** eskoletan ekintza artistiko eta kulturalak garatzeko.
- √ **Mediatekaren lana indartzea** egoitzatik kanpoko ekitaldiak sortuz.
- √ **Eskaintza kultural aberatsa proposatzea** publiko mota guzientzat atsegingarri (musika, dantza, karrikako arteak, antzerkia...), inguruko herriekin elkar lanean, bereziki programazioari doakionez.
- √ **Euskal kulturaren bizitasuna** sustatzea, lurraldearen kultur hitzordu nagusietan parte hartuz besteak beste.
- √ **Beste hiri batekin birazkatzea**, honen jarduera ekonomikoak, nortasunak eta aniztasun kulturalak elkarrekin egitasmoak garatzeko bidea emanen baitigute.
- √ **Ziburuko ondarea**, arkitekturala, zaintzea eta balioz hobetzea.
- √ **Zokoako Gazteluaren proiektua** tokiko eragileekin berriz pentsatzea, ingurumena eta Ziburuko itsas historiari lehentasuna emanez, eta publikoari berriz zabaltzeko asmoz.



# Développement économique et tourisme

*« Pour une ville dynamique et attractive »*

**Notre ville dispose d'atouts importants liés d'une part à sa situation géographique privilégiée**, *mais aussi à la richesse de son histoire et de ses savoir-faire.*

*Si depuis le 1er janvier 2017, c'est la Communauté d'Agglomération Pays Basque qui porte la compétence « développement économique » de notre territoire, il est de la responsabilité d'une municipalité d'accompagner toute initiative impulsée par les acteurs économiques locaux qui vise à renforcer l'attractivité de notre commune.*

*Force est de constater que depuis une vingtaine d'années,* **la vie commerciale de Ciboure est en net recul** *; les habitations ayant progressivement remplacé les petits commerces de proximité qui participaient tant à la vie de la cité.*





*Les habitations ayant remplacé les petits commerces de proximité qui participaient tant à la vie de la cité"*

## NOS PROPOSITIONS :

✓ **Commerce et artisanat :** notre volonté est de renforcer les commerces existants et de développer une offre complémentaire.

- **Réunir régulièrement les commerçants et professionnels** pour définir de manière concertée des mesures concrètes pour accompagner et soutenir leurs activités.
- Réaliser un état des lieux pour **identifier les carences en commerces et artisanat** à Ciboure, et ainsi favoriser leur implantation.
- Mettre en place un **périmètre de sauvegarde du commerce et de l'artisanat** afin de garantir la vocation commerciale des locaux.

✓ **Activité portuaire :** le littoral maritime français compte 65 ports de pêche, 42 criées et halles à marée, et 12 lycées maritimes. Peu de communes peuvent se targuer d'arborer les trois à la fois, Ciboure en fait partie !
En lien avec les professionnels, nous veillerons à **soutenir et développer ce secteur d'activité**, et à valoriser cette filière pourvoyeuse d'emplois.

✓ **Tourisme :** nous développerons un **modèle de tourisme durable et raisonné** et renforcerons l'image de station balnéaire de qualité, populaire et familiale.

# Garapen ekonomikoa eta turismoa

*"Ziburu dinamiko eta erakargarri baten alde"*

*Gure hiriak abantaila handiak ditu, bere kokapen geografiko bikainari esker alde batetik, baita bere historiaren eta ezagutza teknikoen aberastasunari ere.*

*2017ko urtarrilaren 1etik aitzina, Euskal Hirigune Elkargoa baldin bada gure lurraldean "garapen ekonomikoa" egiteko eskumena duena,* **herriko etxe baten erantzukizuna da tokiko eragile ekonomikoek bultzatutako ekimen oro laguntzea***, gure lurraldearen erakargarritasuna indartzeko.*

**Ezin ukatuzkoa da, duela hogei bat urtetik hona, Zibururen bizitza komertziala garbiki gibelka doala***; etxebizitzek pittaka-pittaka ordezkatu dituzte herriko bizian hainbeste parte hartzen duten hurbileko saltoki ttikiak.*






*"Etxebizitzek pittaka-pittaka ordezkatu dituzte herriko bizian hainbeste parte hartzen duten hurbileko saltoki ttikiak"*

## GURE PROPOSAMENAK :

✓ **Saltegi eta ofizialeak:** gure nahia egun dauden saltokiak indartzea eta eskaintza osagarri bat garatzea da.

- **Saltzaile eta profesional guztiak erregularki biltzea**, beren jarduerak laguntzeko eta sustengatzeko neurri zehatzak adosteko.
- **Egoeraren azterketa egitea**, Ziburun saltokiek eta ofizialeek dituzten gabeziak identifikatzeko eta, horrela, haien finkatzea errazteko.
- **Saltegi eta ofizialeen babesteko perimetroa kokatzea**, lokalen saltegi-bokazioa bermatzeko.

✓ **Portu-langintza:** Frantses estatuko itsasertzak 65 arrantza-portu ditu, 42 enkante eta merkatu, eta 12 itsas lizeo. Herri guttik lezake hirurak batera erakusteaz espantu egin, Ziburu da horietako bat!
Profesionalekin elkarlanean, **langintza eremu hori babesten eta garatzen saiatuko gara**, bai eta enplegua sortzen duen arloa agerian ematen ere.

✓ **Turismoa: turismo eredu iraunkor eta zentzuduna garatuko dugu**, eta kalitatezko leku balneario herrikoi eta familiarraren irudia indartuko dugu.

# Proximité et vie des quartiers

*« Pour une qualité de vie retrouvée »*

**La proximité sera au cœur de nos préoccupations**. *Pour cela, nous voulons redonner vie à nos quartiers pour qu'ils ne soient plus de simples quartiers-dortoirs mais qu'ils redeviennent de véritables lieux de vie, de rencontre, de lien social et de bien vivre ensemble où se mêlent logements, commerces et services urbains.*

**Nous souhaitons que les cibouriennes et les cibouriens soient acteurs de leur quartier** *en retrouvant toute leur place dans les décisions municipales qui impacteront leur quotidien et leur cadre de vie. Aussi, nous mettrons à disposition des habitants des outils de démocratie locale et participative à l'échelle des quartiers.*



## NOS PROPOSITIONS :

**CRÉATION DE COMITÉS DE QUARTIER:** instance d'expression, d'information et d'échanges qui permettra aux habitants de contribuer à l'amélioration du cadre de vie de leur quartier, et servira d'interlocuteur privilégié entre les habitants du quartier, le maire et les élus locaux.

✓ **SEMI-PIÉTONISATION** d'une partie du centre-ville afin de proposer un espace piétonnier et sécurisé aux cibouriens et le développement des mobilités douces.
La requalification de ce quartier se fera en concertation avec les commerçants et les habitants du quartier.



✓ **ZUBIBURU:** répondre au manque de places de stationnement du quartier.



✓ **ZOKOA - UNTXIN :** expérimentation d'un lieu de vie collectif type « Maison de quartier » ; cet espace d'accueil polyvalent et de proximité offrira à chacun la possibilité d'échanger et de créer du lien autour d'activités et de toute autre animation. Il participera ainsi à l'animation de la vie sociale, culturelle et sportive locale.



✓ **ZALDI XURITO:** implantation d'un parc de jeux.



✓ **SAINTE CROIX :** création d'un sentier piétons/vélos qui reliera le haut de Sainte Croix à la plaine des sports.



✓ **PLAINE DES SPORTS :** aménager le site de la plaine des sports afin de développer les activités sportives, de diversifier les activités de loisirs et d'améliorer l'accueil des utilisateurs du parc de jeux ; envisager la construction d'une passerelle piétons/vélos sur la Nivelle.



# Auzoen hurbiltasuna eta bizia



*“Ziburuko bizi-kalitate berreskuratuaren alde”*

*Hurbiltasuna izanen da gure arrangurarik handiena. Horretarako,* **gure auzoei bizia eman nahi diegu, ez daitezen ohetegi-auzo bilaka, baizik eta berriz izan daitezen egiazko bizitzeko, elkartzeko, lotura sozialerako eta elkarrekin ongi bizitzeko lekuak***, non etxebizitzak, saltokiak eta hiriko zerbitzuak nahasten diren.*

*Gure nahia da ziburutarrak beren auzoko aktore izan daitezen, beren leku guztia berreskura dezaten beren eguneroko bizian eta bizi-ingurunean eragina izanen duten erabakietan. Beraz, auzo mailan* **demokrazia lokal eta parte-hartzailerako tresnak ezarriko ditugu** *biztanleen eskura.*

## GURE PROPOSAMENAK :



√ **OINEZKOENTZAT** Hiri-barneko zati bat egokitzea, ziburutarrei oinezkoendako gune segurra eskaintzeko eta motor gabeko ibilgailuak garatzeko.
Auzo honen birkalifikazioa komertsantekin eta auzoko biztanleekin hitzarturik eginen da.



√ **ZUBIBURU:** auzoan dagoen aparkaleku faltari erantzutea.



√ **ZOKOA-UNTXIN:** “Auzoko etxea” motako bizitza kolektiboko leku baten esperimentazioa; harrera moldakorreko eta hurbileko espazio horrek parada eskainiko dio bakoitzari trukeak egiteko eta ekitaldien eta beste edozein animazioren inguruan loturak sortzeko. Horrela, bizi sozialaren animazioan parte hartuko du.



√ **ZALDI XURITO:** josteta parke bat ezartzea.



√ **GURUTZE SAINDU:** oinezko zein bizikletentzat bidexka bat sortzea, Gurutze Sainduko gaina eta kirol zelaiak lotuko dituena.



√ **KIROL ZELAIAK:** antolatu kirol-aktibitateak garatzeko, aisialdiko jarduerak aniztu eta josteta-parkeko erabiltzaileen harrera hobetzea; Urdazuri gainetik oinezkoentzat/bizikletentzat pasabide bat eraikitzea aurreikusi.

**AUZO BATZORDEAK SORTZEKO ASMOA:** adierazpenerako, informaziorako eta trukatzerako egiturak, biztanleei beren auzoko bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko eta auzoko biztanleen, auzapezaren eta hautetsien arteko solaskide izateko.

# Politique linguistique

*La langue basque, l'euskara, est une composante essentielle de notre identité et de notre patrimoine culturel;* **elle est d'ailleurs à l'origine du nom de notre ville**.

*La création de l'Office Public de la Langue Basque en 2005 a conduit à la mise en place d'une politique linguistique mieux structurée à l'échelle du Pays Basque Nord.*

*En juin 2018,* **la Communauté d'Agglomération du Pays Basque reconnaissait officiellement le basque comme langue de notre territoire**.

*Nous nous attacherons à définir une politique linguistique volontariste qui visera à* **encourager l'apprentissage et l'usage du basque dans les différents pans de la vie quotidienne**.

# Hizkuntza politika

**"EUSKARAZ BIZI NAHI DUT!"**

*Euskara gure nortasun eta ondare kulturalaren funtsezko osagaia da;* **euskaraz dugu gainera gure herria izendatzen**.

*2005ean, Euskararen Erakunde Publikoaren sortzeak hizkuntza politika egituratuago baten plantan ematea ekarri du Ipar Euskal Herri mailan.*

*2018ko ekainean,* **Euskal Hirigune Elkargoak euskara lurralde honen hizkuntza gisan ofizialki ezagutzen zuen**.

*Euskararen ikastea eta erabiltzea eguneroko bizitzaren atal ezberdinetan sustatuko duen* **hizkuntza politika boluntarista zehazteari lotuko gara**.

## NOS PROPOSITIONS :

- √ Mener une **politique de développement de la langue basque** à tous les niveaux de la vie publique en créant une commission extra-municipale qui regroupera les différents acteurs qui œuvrent à sa valorisation, à sa promotion et à sa diffusion.
- √ **Améliorer l'offre d'accueil en langue basque** dans les structures de la petite enfance existantes.
- √ Défendre une **vision moderne**, dynamique et ludique de l'euskara en fixant comme priorités la jeunesse et les loisirs.
- √ Soutenir et participer à toute initiative et événement qui vise à **favoriser la valorisation et le développement** de l'euskara (Korrika, Euskalraldia).
- √ **Favoriser l'apprentissage du basque** auprès du public adulte en mettant en place une bourse d'étude.
- √ Développer pour la ville des **outils de communication bilingue**.

## GURE PROPOSAMENAK :

- √ **Bizitza publikoaren maila guzietan euskararen garatzeko politika** bat eramatea, horretarako batzorde extra-munizipal bat sortuz, euskararen balioaz ohartzea, haren sustatzea eta hedatzearen alde ari diren eragile ezberdinak bilduz.
- √ Herrian ditugun **haur tipien hartzeko egituretan euskarazko harrera eskaintza** hobetzea.
- √ Euskararen ikuspegi moderno, dinamiko eta ludikoa defendatzea, **gazteria eta aisialdiak lehentasun gisa** ezarriz.
- √ **Euskararen sustapena eta garapena** bultzatu nahi dituzten ekimen eta ekintzetan (Korrika, Euskaraldia…) lagundu eta parte hartzea.
- √ **Helduek euskara ikastera akuilatzea** urratsa egiten dutenei diru laguntza eskainiz.
- √ Herriaren **komunikabideak elebitan** garatzea.

# Finances et fiscalité

*« Gérer c'est prévoir ! »*

**Prévoir pour mieux gérer l'avenir de notre ville**, *tel est l'objectif que nous nous fixons.*

*En effet, le désengagement financier de l'Etat oblige une municipalité à s'inscrire dans une démarche à long terme en anticipant en ne compromettant pas les capacités budgétaires de la commune pour les années et mandats à venir.*





## NOS PROPOSITIONS :

✓ Réaliser un **audit financier** de notre ville dès le début du mandat afin d'évaluer la situation financière de notre commune et d'identifier les enjeux prospectifs des années à venir.

✓ Pour les investissements, **solliciter les aides et subventions** des autres collectivités territoriales et des institutions européennes.

✓ Mieux **maîtriser** les dépenses de fonctionnement.

✓ **Diminuer les dépenses** d'éclairage et de chauffage des bâtiments publics et mettre en place un système d'éclairage public économe en énergie.

✓ Revaloriser, à 60%, la majoration de la **taxe d'habitation** des résidences secondaires.

✓ Maintenir la **Villa Ithurri Baita** dans le domaine public et lui donner une destination culturelle ou sociale qui permettra au plus grand nombre de cibouriens de profiter de ce lieu.

✓ **Travailler en concertation avec nos communes** voisines afin de mutualiser au mieux les politiques publiques et réaliser ainsi des économies d'échelle.



# Finantzak eta fiskalitatea

*«Zibururen geroa gogoan oraina kudeatu»*

*Ziburu hobeki kudeatzeko* ***etorkizunean izanen diren ahalbide eta trabak aurreikustea beharrezkoa da****: hori dugu helburua.*

*Alabaina, Estatua gibelka baitoa bere diru laguntzetan,* ***herriko etxea epe luzera begiratzera behartua da****, gauzak aitzinetik pentsatuz eta herriaren finantza gaitasunak arriskutan ezarri gabe ondoko urte eta mandatuentzat.*





## GURE PROPOSAMENAK :

✓ Gure mandatuaren haste hastetik herriko **kontuen ikuskatze** bat egitea, Zibururen diru egoera ebaluatzeko eta ondoko urteen erronkak zein diren aztertzeko.

✓ Inbertsioentzat beste **lurralde kolektibitate eta europar instituzioen diru eta baliabide laguntzak** eskatzea.

✓ Funtzionamendu **gastuak** mendean atxikitzea.

✓ Eraikuntza publikoen **argi indar eta beroketa gastuak gutitzea,** energia gutiago xahutzen duen sistema plantan ezarriz, hala nola argitzapen publikoan.

✓ **Bigarren etxebizitzen gaineko egoitza zerga** %60era goratzea.

✓ **Ithurri Baita** etxea eremu publikoan atxikitzea eta erabilpen kultural edo sozial bat ematea, leku hau ziburutar gehienen onurarako izan dadin.

✓ Gure inguruko udalekin elkarlanean aritzea **politika publikoak ahalik eta hobekien** partekatzeko eta horrela eskalako ekonomiak lortzeko.

# Intercommunalité





*« Pour repositionner Ciboure dans le débat communautaire »*

*Née le 1er janvier 2017,* **la Communauté d'Agglomération Pays Basque réunit désormais 158 communes et compte plus de 300.000 habitants***, faisant de notre territoire la deuxième agglomération de Nouvelle Aquitaine derrière la métropole bordelaise.*

*Le développement économique, l'aménagement de l'espace communautaire, les transports infra et inter urbains, l'équilibre social de l'habitat, la collecte et le traitement des déchets sont désormais des* **compétences qui incombent à la Communauté d'Agglomération du Pays Basque***.*

*Pour autant, il est de la responsabilité d'une commune de participer de manière assidue et active à la mise en place des politiques communautaires en étant force de proposition.*



## NOS PROPOSITIONS :

- ✓ Participer au développement d'une offre de transports en commun à l'échelle du Pays Basque qui soit adaptée aux besoins de ses habitants (fréquences, horaires, tarifs).
- ✓ Agir pour favoriser l'économie circulaire en limitant les gaspillages de ressources (matières premières, eau, énergie) ainsi que la production des déchets.
- ✓ Faire de la qualité de l'eau un dossier communautaire majeur (eau potable, gestion des milieux aquatiques, gestion du littoral) en proposant l'élaboration d'un programme d'assainissement ambitieux.
- ✓ Sensibiliser et informer les cibouriens sur l'action communautaire.

***"la Communauté d'Agglomération du Pays Basque réunit désormais 158 communes et compte plus de 300.000 habitants"***

# *Interkomunalitatea*

*« Ziburu herrien arteko eztabaidan berriz kokatzeko »*

*2017ko urtarrilaren 1ean sortua,* ***158 herri biltzen ditu Euskal Hirigune Elkargoak eta 300.000 pasa biztanle ditu****, Akitania Berrian gure lurraldea bigarren lekuan kokatuz Bordaleko metropoliaren ondotik.*

*Euskal Hirigune Elkargoak eskumen hauek ditu, besteak beste, bereganatuak: garapen ekonomikoa, hiriguneko eremuaren antolaketa, hirien barneko eta kanpoko garraioak, etxebizitzen oreka soziala, hondarkinen bilketa eta tratamendua.*

*Ondorioz herri batek herrien arteko politikak plantan ematerakoan baitezpada hartu behar du parte, aktiboki eta erregularki, proposamenak ekarriz.*








## GURE PROPOSAMENAK :

✓ Biztanleen beharrei (maiztasuna, ordutegiak, prezioak) egokitutako Euskal Herri mailako **garraio publiko eskaintza** garatzen parte hartzea.

✓ **Ekonomia zirkularra sustatzea** hondarkinen ekoiztea eta baliabideen xahutzeak mugatuz (lehengaiak, ura, energia).

✓ Uraren kalitatea Elkargoaren lehentasunetan finkatzea (ur edangarria, ur ingurumenen kudeatzea, itsas bazterrarena). Horretarako **uren sanotze eta garbitze egitasmo sendo baten gauzatzea** proposatzea.

✓ Elkargoak hartzen dituen neurri eta erabakiez ziburutarrak **informatzea** eta sentsibilizatzea.



1

**Eneko ALDANA-DOUAT**

*Politologue / Conseiller municipal*
*Politologoa / Herriko Etxeko zinegotzia*

WWW.ZIBURUBIZI2020.COM

2

Leire **LARRASA**
Responsable enfance / jeunesse · Conseillère municipale
Haur eta gazteen harrerarako arduraduna · Zinegotzia

3

Stéphane **LE CORFF**
Courtier en assurance
Asurantza artekaria

4

Emilie **DUTOYA**
Formatrice consultante · Conseillère Régionale
Hezitzaile aholkularia · Eskualdeko Kontseilaria

5

Pierre **BIDEGAIN**
Galeriste · Ancien DRH
Galerista · GBZ erretiratua

6

Sabrina **BERROUET**
Infirmière en psychiatrie
Psikiatria erizaina

7

Peio **DUFAU**
Agent SNCF
SNCFko langilea

8

Marion **DUPRAT**
Ergothérapeute
Ergoterapeuta

9

Jean-Michel **DIRASSAR**
Ouvrier qualifié
Langile kalifikatua

10

Fanny **LASCUBE**
Commerçante
Saltzailea

# ZERRENDA · LA LISTE



11

Gauthier **HENAFF**
Technicien cycle · Educateur mobilité à vélo
Bizikleta teknikaria · Mugikortasun hezitzailea

12

Marie-Louise **LECUONA**
Responsable administratif
Administrazio arduraduna

13

Daniel **FRANÇOIS**
Retraité SNCF
SNCFtik erretiratua

14

Aña **MARTINETTI**
Assistante maternelle retraitée
Haur-zaintza laguntzaile erretiratua

15

Antton **BILLIOTE**
Maraîcher
Baratzezaina

16

Graziella **IRIGOYEN**
Hôtesse de caisse
Kutxa Harrerako langilea

17

Periko **ARRIETA**
Artisan
Ofizialea

18

Pantxika **OTAÑO**
Kinésithérapeute
Kinesiterapeuta

19

Pierre **BOLOGNE**
Architecte
Arkitektua

20

Florence **CRÉPIN**
Orthophoniste
Ortofonista

21

Beñat **BILLEREAU**
Agent SNCF
SNCFko langilea

22

Muskoa **ARIZMENDI**
Assistante d'éducation
Hezkuntza laguntzailea

23

Jean-Claude **OLASAGASTI**
Retraité de la fonction publique hospitalière
Hospitaleko funtzio publikotik erretiratua

24

Marie-Josée **HOU**
Restauratrice retraitée
Zaharberritzaile erretiratua

25

Jean-Pierre **LEHMAN**
Juriste · Militant écologiste
Legelaria · Militante ekologista

26

Maddi **ZUBELDIA**
Institutrice
Irakaslea

27

Xabier **MARTIARENA**
Patron pêcheur retraité
Arrantza patroi erretiratua

28

Nathalie **LARREGUY**
Educatrice sportive
Kirol hezitzailea

29

Beñat **TOYOS**
Restaurateur retraité
Ostalaria erretiratua

*Suppléant · Ordezkoa*

Sarah **DUHART-TRECU**
Conseillère touristique
Kontseilari turistikoa

*Suppléant · Ordezkoa*

Henri **ETCHEVERRIA**
Retraité de l'Éducation Nationale
Hezkuntza Nazionaletik erretiratua

## GURE SUSTENGUAK! · NOS SOUTIENS !

www.ziburubizi2020.com



### Sylviane Alaux

Ancienne Députée

*Diputatu ohia*

*“Aujourd’hui, le temps est venu de donner à Ciboure un souffle nouveau! Aujourd’hui, le temps est venu de faire le choix d’une équipe jeune non engluée dans des querelles de personnes. **Eneko Aldana Douat** et son équipe, ont eu la sagesse de s’ouvrir à des personnes venant d’horizons différents, et de composer ainsi une liste plurielle. Au cours de ces six dernières années, ils ont accompli un travail d’opposants à la majorité sortante dans le respect de chacun, et ont acquis une véritable expertise des dossiers municipaux. Aujourd’hui le temps est venu de faire confiance à **Eneko Aldana-Douat** et son équipe, **Ziburu Bizi 2020** !”.*



### Charles Olascuaga

Restaurateur

*Sukaldaria*

*“Issu d’un quartier de la Croix Rouge, fils de pecheur, et restaurateur. Je soutiens **Ziburu Bizi 2020** qui rassemble l’équipe la plus dynamique, la plus locale dont les valeurs et le programme sont pour moi les plus complets et les plus justes pour le renouveau de Ciboure”.*



### Richard Ubera

Ancien pêcheur

*Arrantzale ohia*

*“Pourquoi **Ziburu Bizi 2020**? La passion de **Ziburu Bizi 2020** avec des ambitions et de la motivation. Des convictions fortes avec la volonté de les partager, pas de les imposer. Le privilège de la jeunesse pour la tête de liste qui pourra regarder devant sans être embourbé dans des préjugés du passé”.*



### Sophie Bussière

Avocate au Barreau de Bayonne · Secrétaire EÉLV Pays Basque

***Baionako Abokatu Elkargoko kidea · Europako Berdeen Euskal Herriko idazkaria***

*“J’apporte mon soutien à **Ziburu Bizi 2020**. **Eneko Aldana** et **Leire Larrasa** ont su démontrer lors des conseils municipaux leur détermination à agir dans l’intérêt général. Il est temps que Ciboure retrouve un nouveau souffle: l’équipe de **Ziburu Bizi 2020**, compétente et motivée, incarne ce renouvellement indispensable !”.*



### Arturo Villanueva / Murielle Pavé

Restaurateurs / ***Ostalariak***

*__ARTURO:__ Maitenia sortzeko nituen arrazoin berdinek bultzatzen naute **Ziburu Bizi 2020** sustengatzera: herria eta plaza sozialki biziaraztea, lanpostu duinak eta egonkorrak sortzea, gure arrantzaleekin, laborariekin, Euskoarekin… lan eginez tokiko ekonomikoa suspertzea, Ziburuko historia, kultura eta hizkuntza balorean ematea, finean denok ongi bizitzeko Ziburu hobe bat sortzen laguntzea. Konfidantza dut **Ziburu Bizi 2020**ren lana norabide berean joanen dela.*

*__MURIELLE:__ Nous, vous, ils … sont l’évidence. Belle équipe bien plantée dans le décor de notre jolie bourgade, avec un projet pour faire de Ciboure un lieu culturel et pluri générationnel. **Ziburu bizi 2020**… tout est dit!*


ziburubizi@gmail.com · 06.31.53.21.71 · 41 Rue Pocalette · 64500 · Ciboure / Ziburu · facebook · instagram · twitter